En dos puntos diferenciados y ya desaparecidos para dar cabida al desarrollo urbanístico de Urretxu, en la calle Labeaga, se elevaban la **Fábrica de mimbre y junco de Agustín Aguirre** y la **fábrica de muebles Hermanos Garin**. La primera comenzó a principios de siglo, dedicada a la fabricación de muebles de junco y a cestería fina. Era éste un trabajo muy artesanal donde la presencia de las máquinas era muy limitada si se exceptúan las llamadas "fandúas" sencillos aparatos de madera que partían el mimbre de tres o cuatro tiras. Para fabricar estos muebles se empleaba mimbre, junco y palo de castaño. El palo de castaño se cocía en una caldera y posteriormente se pelaba. Preparado así quedaba listo para que el montador lo utilizara en sus creaciones. El mimbre era de dos colores: blanco y buff. Para obtener el mimbre blanco la operación era más complicada. Se clasificaba por tamaños y se volvía a plantar en la tierra con abundante agua. En la primavera volvía a rebrotar y la piel se desprendía fácilmente. Se utilizaba para la elaboración de butacas, cunas, cestas modernistas para los ferroviarios o bien cestería fina que en ocasiones se tapizaba en seda. El junco se utilizaba para hacer juegos de jardín, butacas.

### "Urretxuko herriaren industrializazioan (XIX. mendeko 2. erdialdean) indartu egin ziren sektore aniztasuna eta enpresa txikiak eta ertainak"

La fábrica de Muebles Garin se dedicó también a la fabricación de muebles de junco, mimbre y médula esmaltada, cestas y bases de silla de castaño. Contaba con solo dos máquinas: una



para desmedular el mimbre y otra para pelar el castaño tanto en el caso de los muebles como el de las cestas, se trataba de trenzar y tejer con las diferentes materias primas, si bien el acabado de los muebles era más complejo, sobre todo en el caso de los muebles de lujo que en ocasiones se blanqueaban o se esmaltaban. La madera de castaño para cestas y bases de sillas comunes procedía de la misma comarca del goierri, la médula, en cambio, se traía de Filipinas.

También en el casco urbano de Urretxu, todavía en pie se alza lo que fueron las instalaciones del **Taller de maquinaria Pedro Rodríguez**. El taller propiamente dicho cuenta con una sola planta que discurre perpendicular a la calle Labeaga ocupando el espacio entre esta y el río Urola. Comenzó su actividad hacia 1910 cuando se dedicaba a la fundición de bronce. En 1922 orientó su actividad hacia la fabricación de maquinaria: trituradoras, cilindros pesados y el famoso torno revolver. También se dedicó al montaje de fábricas como la de Cementos Lemoa.



En 1932 se elevó un piso más por encima del taller, y se construyó una vivienda. En los años 50 se construyeron delante del taller un edificio de viviendas destinadas a los descendientes de Pedro Rodríguez.

Ya hacia la salida del casco de Urretxu, en dirección a Bergara y Legazpi se encuentra la zona industrial más antigua que se conserva. Es una sucesión de edificios industriales alineados paralelamente a la carretera, donde se ha conservado su vocación industrial. Justo detrás de esta zona se ha construido la nueva zona industrial: el polígono Mugitegi, que sigue los nuevos planteamientos urbanizadores que propugnan la zonificación de la industria

Esta zona se ha orientado casi en exclusiva por el trabajo del hierro. Veremos a continuación algunos datos de dos empresas que continúan su andadura.

**SARRALDE S.A.** El 2 de septiembre de 1927 Pío Sarralde y Saez de Heredia vecino de Vitoria-Gasteiz decidió instalarse en Urretxu y levantar una fábrica que se destinaria a la fabricación de aceros especiales y piezas moldeadas. Fue una de las primeras que se dedicaron a la fundición eléctrica. En 1930 la empresa se amplió, al igual que en fechas posteriores para lo que ocupó los antiguos terrenos del Ferrocarril Vascongado. Sus naves se alinean a la carretera. A media altura Pío Sarralde levantó su vivienda sobre el citado pabellón.

La fundición se realizaba a partir de un horno eléctrico en el que se fundía la chatarra


## “Duela gutxi arte, herriko bazter guztietan agertzen zen industria. lantegiak eta etxebizitzak batera zeuden, inongo bereizketarik gabe”

Fue una de las primeras empresas que inició la fundición de acero al horno eléctrico. El horno original que todavía se conserva es de la marca Lectromet (Estados Unidos) de 500 kg y que llegó a

realizar hasta 1975, 51.547 coladas. En la actualidad esta empresa continúa en activo bajo el nombre de Fundiciones Urretxu.

**IRIMO** Esta empresa en el año de su consecución, en 1927, se denominaba J.L. Aparicio. Comenzó dedicándose a la forja de molinos de canteras y maquinaria agrícola, palancas. Luego pasó a fabricar repuestos para los camiones para Pegaso, trabajos todos ellos orientados a la automoción. En el año 1958 Eugenio Garijo Sesma un trabajador de la empresa inventó la llave ajustable con la rueda lateral. Este inventó alcanzó en Bruselas el premio del salón de inventos. En el año 1986 formaron un holding con la empresa Palmera de Irun, y ACESA de Vitoria-Gasteiz y se creó FAHAVE. Esta asociación se mantuvo hasta 1995, fecha en la multinacional Snap-on de Estados Unidos y las tres empresas antes mencionadas crearon Eurotools aunque cada uno ha mantenido su marca comercial.

Esta empresa, en vista a la obligación a la que estaban sujetas las empresas industriales, de construir un número de viviendas equivalente al 20% de la plantilla decidió en el año 1956 la construcción de 45 viviendas. Se eligió para ello un terreno cercano a la fábrica: rural y alejado del núcleo principal de población. Para ello se adquirió una parcela perteneciente al caserío Inchenea, en la bifurcación de la carretera de Urretxu a Legazpi y a Bergara. Los por aquel entonces proyectos de los enlaces de las carreteras envolvían totalmente los terrenos del caserío Inchenea y los convertían en una isla con forma de gota de agua de una superficie de 10.679 m<sup>2</sup>. Se proyectaron dos casas triples y dos dobles con cuatro plantas formando una V. De ellas 8 son de segunda categoría con 80, 75 m<sup>2</sup> y 32 m<sup>2</sup> son de tercera categoría con 100m<sup>2</sup>



Horno eléctrico original de Sarralde

Son bloques abiertos, pero al disponerse en forma triangular forman un espacio semiprivado en el interior.

Para terminar es necesario destacar la existencia todavía en pie de la **estación del ferrocarril del Urola**, a la que poco a poco se le va imprimiendo de un nuevo uso, la mejor manera de que abandonado el uso original se mantenga en pie los elementos y los edificios. Igualmente la explanación del propio ferrocarril ha descubierto un nuevo uso de la mano de un cómodo paseo. También se conserva en pie la **Casa de Camineros** n. 139 Se encuentra a la salida del casco urbano de Urretxu hacia Legazpi. Las obras para su construcción se realizaron en 1932 y fue reformada en 1966. ■

Beatriz Herreras

# Euskarazko irakurketa eta komunikabideen erabilera zabaltzeko eta indartzeko kanpaina berezia



## Urretxu eta Zumarragako udalen ekimenez sortua

- Harpidedun berriei zuzendua
- Urtebeterako harpidetza eginda, urte horretako harpidetza-kostuaren %25 udalek ordainduko dizute.
- Komunikabide bakoitzaren eskaintza bereziaz ballatzeko aukera
- Kalitatezko zerbitzuak
- Eskaintza bereziak
- Euskaldunon Egunkaria, Argia, Elhuyar, Hik Hasi, Bertsolari aldizkaria, HABE, Jakin, Ipurbeltz, BAT, Zabalik, Aizu, Irutxulo, Luma, Uztaro, Putz, ...
- Argibide gehiago bi udaletako euskara zerbitzuetan.

Urretxuko Udala : 943 03 80 80 e-posta: euskera.ur@urretxu.net

Zumarragako Udala: 943 72 91 53 e-posta: euskera.zu@zumarraga.net



Joxux Mari Alberdi



# Revisión de las normas subsidiarias

**Desde que en el año 1990 se realizara la última revisión de las normas subsidiarias la fisonomía de Urretxu ha cambiado notablemente.**

**Desde entonces hasta la actualidad se han realizado además varias modificaciones puntuales así como el plan de rehabilitación del Casco Histórico.**


**E**n este momento las normas subsidiarias a las que nos referíamos están cumplidas al 100% y como una de las prioridades del equipo de gobierno del Ayuntamiento para esta legislatura era la de proveer de suelo urbanizable al municipio, además de la demanda de viviendas que se ha constatado en las últimas promociones y por la necesidad de una

intervención en el mercado inmobiliario, debido al fuerte incremento de los precios de la vivienda, se impone una revisión de las mismas.

Para ello se ha encargado un estudio previo a una empresa especializada para analizar las posibilidades existentes en Urretxu.

En este estudio se lleva a cabo una breve descripción histórica, física y territorial del municipio y un análisis de la estructura de la población y de la vivienda para posteriormente realizar una propuesta inicial en distintos campos:

a) Promoción de nueva vivienda: se propone que se debería planificar suelo para unas 440 nuevas viviendas de aquí al 2013.





b) Red viaria: Urretxu tiene una red viaria en forma de espina de pez con un vial principal y tres ramificaciones con fuerte pendiente. Se propone un vial paralelo al principal que ya fue contemplado como posible variante en el año 1980 y que luego se desestimo al construirse la variante de Zumarraga.

c) Suelo industrial: Seria necesario un estudio previo, teniendo en cuenta el impacto ambiental que supone este tipo de suelo por el gran movimiento de tierras que es necesario para su realización. Se proponen 2 nuevas zonas industriales.

d) Equipamientos: La construcción del número de viviendas propuesto daría de algo más de 7.000 habitantes lugar a un municipio lo que supone unos 40.000 m<sup>2</sup> de parques y jardines además de equipamientos deportivos. Habría que preveer su ubicación.

Como podemos observar esta revisión de las normas subsidiarias no solo afecta a la vivienda en Urretxu, sino a otros muchos campos de actuación como tráfico, aparcamientos, nuevos servicios, etc.

Dado que en este momento estamos en los primeros pasos de este proceso y que desde que se realiza el avance hasta que las nuevas normas son aprobadas por el Gobierno Vasco y la Diputación transcurre un periodo de 2 años, sin duda en proximos números de KAIXO tendremos la oportunidad de retomar el tema con las noticias mas importantes que vayan surgiendo. ■

*M.ª Carmen Viedma*

## ARAU SUBSIDIARIOEN ERREBISIOA

Urretxuko azken arau subsidiarioak 1990 urtean onartuta izan ziren. Arau hauen % 100 bete egin denez, Udalak ikerketa bat eskatu dio enpresa bati, dauden posibilitateak aztertzeko.

Ikerketaren emaitzak onak hauek izan dira:

- 440 etxebizitzarako lurra aurkitu behar da.
- Labeaga kaleko bide paralelo bat proposatzen da.
- Bi zonakde berri proposatzen dira industriak eralkitzeko.
- Parkeak eta lorategiak egin behar dira 7.000 biztanle inguruko Urretxu batentzako.

Prozesuaren lehenengo pausotan gaudenez, Kaixoko hurrengo aleetan berri gehiago emango dugu gai honi buruz.





# BASERRIA, gertuen dugun denda

Askotan, etxeko produktuak alde batera utzi, eta kanpokoetara jotzen dugu elikatzeko. Urola Garaian sortu den egitasmo berri baten bidez, gure baserriek eskaintzen dizkiguten produktuak gertuago izango ditugu.

**G**izartea jasaten ari den aldaketak, gure elikaduran ere eragina du. Jateko ohiturak aldatu dira, eta era berean, baita erosketak egiteko ohiturak ere. Kasu askotan, baserriak heltzen zaizkigun produktuak alde batera uzten ditugu, eta horrek, apurka-apurka, baserriaren desagertzea dakar. Hori dela eta, Urola Garaiko mankomunitateak, Goimen mendi nekazaritzako elkarteak, Ugassak eta Urretxu, Zumarraga eta Legazpiko dendari elkarteek, produktu horiek bultzatzeko kanpaina abian jarri dute.

Kanpaina berri hau, uztailean jarri da martxan. Urretxu, Zumarraga, Legazpi eta Ezkio Itxason triptikoak eta kartelak banatu dira. Bertan, lau herrietako nekazal produktu ekoizle-en izena agertu da, horien helbide eta telefonoa, eta ekoizten dituzten produktuak non aurki ditzazkegun. Era berean, garai bakoitzean zein produktu topa dezakegun ere zehazten da.

Kanpaina honen bidez, kontsumitzaileak kontzientziatu nahi da. Hau da, baserriko produktuen gertutasuna eta kalitatea azpimarratu eta

**“El objetivo: concienciar a los consumidores”.**



Elena Niño, Irigon baserria



Juan Pedro Betegi, Beidakar baserria

horiek, gure osasunean dituzten onurgarritasunak zabaldu.

Infomazio guztia adierazten duten triptikoak, mankomunitateko herrietan astero egiten diren merkatuetan banatu dira. Horretaz gain, lau herrietako etxeetako buzoietan ere zabaldu dira.

Egitasmo hau, orain zenbait hila-bete sortu zen. Bertan, mankomunitateko udalek ez ezik, Goimen elkar-teak, Ugassak eta Urretxu-Zumarragako Bi Tartean dendari elkarteak eta Legazpiko Ilinti dendari elkarteak ere parte hartu dute. Guztien helburua bera da: baserriko produktuaren alde egitea.

Gure eskualdeko baserrietan, denetik topa dezakegu. Barazkiak, esnea, haragia, etb. Urretxuko Beidakar baserrian, batez ere haragia ekoizten dute. Bai txal haragia baita arkumeak ere.

Juan Pedro Betegik adierazi digunez, orain urte asko hasi zen haragia saltzen. Herriko bi harategietara saltzen du, eta dionez, harrera ona izaten du bertako haragiak. Hazten duen guztia saltzen baitu.

Eta kasu batzuetan, arkumearenean esaterako, ia eskuetatik kentzen dizkiotela aipatu digu.

Kanpaina berri hau, begi onez ikusten du, nekazal inguruari bultzada ematea beharrezkoa baita. Izan ere, baserriko generoa saltzeko eta etekina lortzeko, zailtasun handiak daude. Lan asko egin beharra dago.

Baserriko produktu hauek, herriko hainbat dendetan topa ditzazkegu. Horieta bat, Intxausti harategia da. Bertan, haragiaz gain, esnea eta hainbat barazki ere saltzen dira. Harategi honetan ere, ongi ikusten dute egitasmo berri hau. Hala ere, Josetxok dioenez, oso zaila da baserriko produktuek dituzten onurgarritasunez erosleak kontzientziaztea. Izan ere, jende askok dagoeneko erosketak egiteko ohiturak hartuak ditu, eta aldatzea oso zaila da. Bere aburuz, baserriko produktuak hobeak dira eta horregatik, baita garestiagoak ere. Hori dela eta, hainbat jende ez ditu erosten. Izan ere, erosle askok, kalitateari berari baino, gehiago begiratzen diote generoaren prezioari. ■

*Maidor Izagrrre*

## LA TIENDA MAS CERCANA EL CASERIO

Los cambios que vive la sociedad, también afectan a nuestra compra y manera de comer. Y es que, en muchas ocasiones, miramos más a los productos de fuera, que a los que tenemos cerca de casa. El caserío nos ofrece muchos productos con los que poder alimentarnos. Por eso, y para que sepamos qué nos ofrecen nuestros caseríos y dónde encontrar lo que nos ofrecen, la mancomunidad de Urola Garaia, ha puesto en marcha un nuevo proyecto.

A través de esta campaña, se pretende concienciar a la población, de que muchos productos de calidad y buenos para nuestra salud, los tenemos al alcance de la mano. Tanto en los mercados como en las tiendas de nuestro municipio.



# MIKEL LIZARRAGA:

“Euskaltegien  
etorkizuna  
espezializazioan  
dago”



Urretxuko  
euskaltegiko  
lehenengo irakaslea  
da, eta bertan  
errebotean lanean  
hasi bazen ere gaur  
egun arte ez du utzi.  
Baina, nor da  
Mikel Lizarraga?

**M**ikel jaiotzaz nafarra da Dorrao-Torrano herrikoa alegia, eta ez du ez historia makala bizkarrean.

Bazen behin mutiko kokkor bat. Hamaika urterekin eskolan zagoela apaiz joan nahi zuen galdetu eta berak baietz. Misiolari izan nahi zuen. Horrela ba, garaiko mutikoa kaputxinoetara eraman zuten eta bertan garai luzea igaro ere. Mikelek apaizgoan ikasketa batzuk egin ahal izateko aukera ikusi zuen bertan, ezinbestekoa beste modu batetara, garai gogorrek baitziren haiek.

Baina urteak aurrera joan ahala gure apaiza bere krisialdiak edukitzen hasi zen. Lehenengoa gaztetxo izan zuen 16-17 urterekin. Baina esperientziadun apaiz batek edo bestek konbentzitu zuten bere ikasketekin aurrera jarraitzeko, eta honek jarraitu.

Halako batean ahots autoritario batek esan zuen: "zu, Fray Miguel Angel, Erromara joan behar duzu ikastera!" eta kontratzerako Mikel gazteak Erroman ikusi zuen bere burua. Erroman Lizarragak bere krisia sakonduta ikusi zuen, honek nahi zuena txiroei laguntzea baitzen eta ez ikasi gero irakasle izateko. Erroman eman zuen denboraldia edozein beste ikasle modura egin zuen, pisu batean bizi zen beste batzuekin batera eta berak esan bezela bertan igarotako bi urteak "viva la vida" pasa ziren. Lagun ugari egin zituen, kultura desberdinak ezagutu eta parranda galantak egin.

Italiako ikasketak amaituta Mikeli etorkizunerako bi aukera eman zizkioten; edo Filipinetara joan misiolari edo berak aukeratzea. Ordurako Mikelek bere ideiak argituz joan zen eta langile munduak eta garaiko langile mugimenduak zirrara sartuta zioten gorputzean. Honela







## “Apaiza sartu eta utzi nuen arte krisialdi ugari eduki nituen”.

ba Lizarraga Frantziara eraman zuten “Capellán de Emigrantes” gisa.

Frantzian lantegi batean hasi zen lanean. Garai nahasiak ziren, ‘mayo de 1968’. Dena den hau ez zen apaizekin bizi.

Mikel eta bere kidearen pisuak ostatua zirudien, edonorri zabaltzen zizkioten ateak, horrela ba borroka armatuarekin bat ez zetorren ETA kidea eduki zuten pisuan, noski, hau guztia ondoren jakin zuten. Dagoeneko 1973. urtean aurkitzen gara. Euskaldun honek eman zion gakoa Mikeli berriro ere Euskal Herrira bueltatzeko, bere tokia non zegoen erakutsi eta euskaldun bezela bere laguntza behar zutela ikusi arazi zion. Gauzak horrela, Frantzian bi urte eman ondoren Euskal Herrira itzuli zen.

Itzulerarekin batera bere barne krisiaren bigarren fasea hasi zen: Altzara egin zuen buelta eta bertan dagoeneko zertxobait gehiago murgiltzen hasi zen langile borrokan. Garaiak benetan gogorrak ziren, Frankoren garaia, borroka politikoren garaia zen. Horrela ba, Mikel ‘Comisiones Clandestina’s-en interesatzen hasi zen. Ondorengo garaietan greba gogorrak hasi ziren, errepresioa. Mikel orduan konturatu zen zenbiteraino langile mugimenduan murgilduta zegoen, izan ere polizia atzetik zuela ohartzarazi zuten eta berak korrika Hondarribiko Kaputxinoetara joan zen. Ondoren Madrilerira ihes egin behar izan zuen. Madrilen bizi ahal izateko denetarik egin behar izan zuen, izan ere ordura arte irabazitako guztia elizari ematen baitzion. Eta hau guztia propaganda eta panfletoak botatzeagaitik!

Madrilen ‘Centralismo Democrático’ deritzonan sartu zen eta **U r r e t x u -** Zumarraga edo Legazpi iguruan lana bilatzeko esan zioten, langile industria handiak baitzeuden.

\*Iraultza langileen esku dago\* esan zioten,

eta gauzak horrela Patrizioen hasi zen lanean. Baina berak berean jarraitzen zuen, borrokan, sindikalismoan. Langile partidua ere eratu zuten ORT alegia eta ‘Vespa’batean propaganda botatzen zuten. Halako egun batean, bapatean tiro hotsak entzun eta korrika alde egin behar izan zuten, polizia atzetik zegoen. Suerteak polizia lurrera erortzea nahi izan zuen eta zorionez honi esker ihes egin ahal izan zuten. Ahaztu ezina benetan!

Honen guztiaren ondorioz ezkutatu behar izan zuen eta noski lanetik bota zuten. Atxilotu eta jipoitu ere egin zuten, baina beste kapitulu batean kontatu beharrekoa litzateke, aipatu suertea eduki zuela!

Eta une honetan azken fasea hasten dela esan daiteke.: 80ko hamarkadan gaude frankismoa igarota eta transizio garaia ia



## “Langile mugimenduan barruraino sartu nintzen”.

amaituta. Pertsona batek euskara irakasteko eskatu zion, horrela hasi zen bada Urretxuko gau eskola. Ondoren berak titulua atera eta 1981. urtean Jauriaritzaren diru laguntzen bidez jarri zen martxan Urretxuko Udal Euskaltegia. Hasieran nahiko gogorra izan zen materiala urria baitzen eta klaseak bost ordu-takoak baitziren. Hala ere, berearekin jarraitu eta euskaltegiak aurrera egin zuen. Une honetan aipatu ere Mikelek azkenean 14 urte eman zituela apaiz izatetik irten arte!

Egun Mikel Lizarraga jubilazioaren atarian dago eta dudarik gabe euskaltegien etorkizuna transformazioan ikusten du. Gaur egun zorionez ikastolak daude euskara irakasteko horregaitik euskaltegiak zerbitzu modura egokitu behar dutela uste du, espezializiorako joera eduki behar dute. Hor daukate etorkizuna. ■

### MIKEL LIZARRAGA

Mikel Lizarraga, el profesor más veterano del Euskaltegi de Urretxu ya piensa en su jubilación, pero lo que muchos desconocíamos es el pasado novelesco que arrastra. Un pasado religioso, lleno de dudas, detenciones, Euskera, amistades, huidas,... un pasado que bien se merece un libro.

*Estitxu Gómez Asensio*





# Jaiotzak



- |  |   |
|--|---|
| <p><b>Apirila</b></p> <p>16 IÑAKI ZUFIRIACENDOYA eta BEÑAT ZUFIRIACENDOYA<br/>Gurasoak: Juan Antonio eta Laura</p> <p>19 XABIER ZUFIAPELLERIA<br/>Gurasoak: Fco. Javier eta M.<sup>a</sup> Milagros</p> <p>23 OIERCHICO BASABE<br/>Gurasoak: Xabier eta Garbiñe</p> <p>26 EIDERRUEDALOPEZ<br/>Gurasoak: Jose Antonio eta Maria Teresa</p> <p>30 NEREARICOFERNANDEZ<br/>Gurasoak: Jose Antonio eta M.<sup>a</sup> Jesus</p> <p><b>Maiatzak</b></p> <p>2 JONURISABELIRASTORZA<br/>Gurasoak: Jose M.<sup>a</sup> eta Rosa Mari</p> <p>11 LUKENCABALLEROPEREZ<br/>Gurasoak: Pedro eta Ana Maria</p> <p>13 NAIABEITIABOILLOS<br/>Gurasoak: Mikel eta M.<sup>a</sup> Rosario</p> <p>14 PABLOLOPEZALDAMA<br/>Gurasoak: Jesus eta Elisabeth</p> <p>14 DAVIDNEBREDADAESTRELLA<br/>Gurasoak: Gillermo eta Ana Maria</p> <p>28 CRISTINAMADERAMADINA<br/>Gurasoak: Roberto eta Maria Elena</p> <p>30 SAIOAGURRUTXAGACABALLERO<br/>Gurasoak: Ander eta Elisabet</p> | <p><b>Ekainak</b></p> <p>7 JONLIZARRALDEORMAZABAL<br/>Gurasoak: Juan Cruzl eta M.<sup>a</sup> Nieves</p> <p>9 SAIOATERCEÑO CARRILLO<br/>Gurasoak: Jose Manuel eta M.<sup>a</sup> de los Angeles Ines</p> <p>17 JONPEREZRAMOS<br/>Gurasoak: Juan Fco. eta Nuria</p> <p>21 IRATIPEREZSORALUCE<br/>Gurasoak: Antonioli eta M.<sup>a</sup> Amaia</p> <p>25 OSKARENRIQUELOPEZ<br/>Gurasoak: Jorge eta Raquel</p> <p>26 ANEDELGADOORMEÑO<br/>Gurasoak: Francisco eta Maria Teresa</p> <p><b>Uztailak</b></p> <p>10 CRISTIAN TOMAS URKIA<br/>Gurasoak: Alejandro eta Idoia</p> <p>11 JONEHURTADONOGALES<br/>Gurasoak: Juan Carlos eta Ines</p> <p>11 ALVARO RUIZDEALEGRIAGIMENO<br/>Gurasoak: Juan Pablo eta M.<sup>a</sup> del Carmen</p> <p>13 NEREADUALJIMENEZ<br/>Gurasoak: Aaron eta Susana</p> |
|--|---|

<p><b>Apirilak</b></p> <p>18 M.<sup>a</sup> TERESALOPEZURRUTIA 74 urte</p> <p>19 EUSEBIA AYASTUYZABALETA 89 urte</p> <p><b>Maiatzak</b></p> <p>15 ROBERTPOCARLOSGAGOSANCHEZ 31 urte</p> <p>30 DANIELRUBIOEXPOSITO 77 urte</p>
---



# Heriotzak



**Agustín Elías**

Agente de viajes  
Barceló bidaiak

- 1.- **Viaje organizado o trotamundos**  
Por edad y negocio, el organizado; pero aunque parezca mentira, hay gente que acude a nosotros para organizarse un viaje por su cuenta.
- 2.- **Agente de viajes o guía turístico**  
Son terrenos complementarios. El agente abarca más terreno. El de guía es un servicio más localizado.
- 3.- **Vacaciones propias o ajenas**  
En este trabajo siempre te contagian un poco. Es una envidia sana. Llegas incluso a enfocar tus viajes como una formación para orientar mejor a tus clientes.
- 4.- **Avión o barco**  
Personalmente me es indiferente. Lo que más se vende es el avión, pero cada vez sale más el crucero, que siempre ha tenido fama de elitista.
- 5.- **Campig o 5 estrellas**  
A estas alturas, 5, 4 y hasta de 3 estrellas antes que de camping, pero hay que pasar por todo.
- 6.- **Sol o sombra**  
Una combinación de ambos. El sol carga pilas, pero no hay que obsesionarse con él.
- 7.- **Mundial de fútbol o reportajes de viajes**  
Yo prefiero los viajes, aunque respeto otros gustos.
- 8.- **14 ochomiles ó 1 a Irímo**  
Sin duda Irímo y otros de la zona como Txindoki, Urbia, Aizkorri,...
- 9.- **Comida en Santa Bárbara o excursión a La Rioja.**  
Las dos, cada una en su momento. A la de Sta. Bárbara me apunto el primero pero en La Rioja también se disfruta mucho.
- 10.- **El Kaixo o un catálogo de viajes.**  
Leo muy a gusto el Kaixo, tiene mucha variedad y te enteras de lo que pasa en el pueblo. El catálogo tiene ya pocas novedades para mí. ■


Jón Castrillo

## UROLA-GARAIA ESKUALDEKO GIDA BERRIA

Pasa den ekainaren 28an UROLA-GARAIA eskualdearen gida berria aurkeztu zen Zumarragako udaletxean. Bertan Zumarraga, Urretxu, Legazpi eta Ezkio-Itsasoko errekursto turistikoak azaltzen dira: bakoitzaren gune historiko interesgarreinak, museoak, historia, festak, tradizioak... Gida LENBUR fundazioak argitaratu du eta bere bidez urtean zehar egiten diren feria turistikoetan banatuko da, oraindik ezagutzen ez gaituztenak ezagutu gaitezen.

Urretxuko alde zaharra eta Iparragirrerren ibilbidea

Aldi berean eta LENBURren bidez Urretxuko Udalak laguntza eskatu dio Eusko Jaurlaritzako turismo sailari Urretxuko alde zaharrean eta Iparragirrerren inguruan ibilbide turistikoa sortu dezan. Laguntza horrekin ondo antolatutako bisitaldi batek beharko lituzkeen baliabideak eskuratu ahal izango lirateke: dokumentazio zentru bat, ibilbidearen gaineko ikusentzunezkoak, foiletoak, seinalizazioa.... Izan ere, geroz eta gehiago dira gure herria ezagutzeko asmotan etortzen direnak.





## SCHWARZENBRUCKEKO BERRIAK

Lehenago maiatzean Schwarzenbruckeko ordezkari bat izan zen Urretxun. Bisitaldiak bi helburu zehatz zituen: bata Schwarzenbruckeko udalak argitaratutako hermanamenduen liburuaren aurkezpena egitea. Bertan Schwarzenbruckekin anaikidetutako herrien informazioa eta herrialde bakoitzaren sukaldaritza erreze-ta batzuk azaltzen dira. Bigarren helburua zen Urretxun, Schwarzenbrucken egin duten beza-la, anaikidetzaren aldeko herri elkarte eta mugimendu bat sortzea. Hermanamendua instituziotik herrira eramatea eta horrela benetako protagonismoa herriari ematea. Esan dugun moduan, Schwarzenbrucken horrelako elkarte bat sotu zuten, Albert Frister, bertako alkatea izan zenaren eraginez. Bera izan zen baita Urretxurekiko anaikidetza bultzatu zuena. Urretxuko udalak Euskal Jaia taldeari luzatu dio proposamena eta proiektua bera izan dadin ekimen honen bultzatzaile nagusia.

Azkenik esan abuztuaren LURRA dantza taldea egun batez egongo dela Schwarzenbrucken eta bertan emanaldi bat eskainiko duela. Izan ere, abuztuaren 20tik 31ra bitartean LURRAkoak Polonian izango dira bertako Rzgow herrian egiten den dantza jaialdian partehartzeko. Eta bidai honen ondorioz, Santa Anastasia jaietan egiten den folklore jaialdian Poloniako dantza talde baten partehartzea izango dugu.



## GOIARGI ABESBATZAK 20 URTE

Uztailaren 1ean Urretxu eta Zumarragako GOIARGI ABESBATZAK bere 20. urtemuga ospatu zuen. Goiargi 1982. Urtean jaio zen Maite Palaciosen ekimenaz. Lehenengo bi urteetan ahots txuriko abesbatza izan zen eta gero gizonezkoak sartu ziren harrez gero ahotsa nahasturiko abesbatza delarik. Zuzendariak hiru izan dira: Don Antonio Rey, Xabier Barriola eta gaur egungoa den Xabier Arratibel. Lehenengo uzatilaren 1ean Zumarragako Zelai-Aristi aretoan egin zuten kontzertuan berriz ere bizi izan zuten orain dela 20 urte eta leku berdinean 60 emakumek Don Antonio Reyren zuzendaritzapean bizi izandako momentu hunkigarriak.

## ALDAKETA FILATELIA ETA NUMISMATIKA TALDEAREN 25. URTEMUGA

Ospakizunetan sartuta, aurten ere ALDAKETA elkartearen 25. Urtebetetzea ospatuko da. ALDAKETA filatelia eta numismatika taldea 1977. urtean sortu zen hainbat zaleturen bultzadaz. Orduetik hona hainbat eta hainbat erakusketak antolatu dituzte eta baita zigilu eta txanpon bereziak kalderatu ere: Iparragirre, Urretxuko udaletxea, Zumarragako udaletxea... eta herriko hainbat sinbolo txanpon edo zigilu bihurturik ikusi ditugu. Lehenengo zuzendaritza taldea hauxe izan zen: lehendakaria, Txema Mendiola; lehendakari ordea, Jesus Pascual; idazkaria, Jose Agustín Dominguez; diruzaina, Felix Perez; Jose Luis Arruebo, Melencio Mansilla eta Miguel Fernandez laguntzaileak. Baina taldeak kide guztien lana eta partehartzari esker jarraitu du aurrera gaur egun arte.



## URRETXUK HARRESIA ETA UREZ BETETAKO FOSOA IZAN ZITUEN

Jakina da Urretxu, herri bezala, 1383an sortu zuela, Juan I.a erregeak emandako "Carta Puebla" gordeta baitago. Baina garai hartan eta ondorengo mendeetan ere, ze itxura eduki zuen herriak ez dago oso argi. Orain egiten ari diren ikerketekin ari gara horri buruzko datuak jasotzen.

Apirilean, herrian egindako azken indusketa arkeologikoen emaitzak azaldu zituzten udaletxeko areto nagusian Arkeolan taldeko Mertxe Urteaga eta Eliseo Gil Zubiagak. Bi arkeologo hauen esanetan Urretxuk harresia eta urez betetako hobi edo fosoa izan zuen. Mertxe Urteagak azaldu zuenez, Urretxurekin batera jaiotako Gipuzkoako beste hainbat herri ere izan zituzten, hala nola, Azpeitia, Elgoibar ala Tolosak. Beraz ez da harritzekoa.

Jauregi eta Nekolalde kaleetan egindako indusketetan, hau da, harresia egon zen lekuan, ez dute honen arrastorik aurkitu baina fosoa egon zeneko frogak argiak bai. Ondorioz, pentsatzekoa da harresia ere egon zela. Hobi edo fosoa hau Irimotik jaisten ziren ur korranteek sortzen zutela uste da. Beraz, herria urez inguratua eta babestua zegoen: Urola ibaia alde batetik eta Irimotik jaitsitako urak beste alde guztietatik.

Eliseo Gil aritu zen indusketak egiten eta bertan aurkitutako materialen berri eman zuen. Alde batetik, hainbat mende geroago etxeak egiteko fosoa betetzen erabilitako materiala aurkitu zuela azaldu zuen. Baina baita hobia bere horretan zegoenean botatuko animalia hondarrak, ardiak gehienbat, edo bestelako piezak ere, Aragoi estiloan egindako zeramika zatiak eta oinetako puskak esaterako. Hala ere, indusketetan aurkitutako altxorrik preziatuena Errege Katolikoen garaian erabili ohi zen txanpon bat da. Material hau guztia Aranzadi elkartearen esku geratu da.

1990.go Patrimonioren legearen arabera,

alde zaharrea obrak egingo diren bakoitzean indusketak egiten jarraituko da, Urretxuren Erdi Aroko historia iluna argituko duten aztarna



2002KO LORE SARIKETA

Lehenengo uztailaren 19an egin zen aurtengo lore sariketaren sari-banaketa Urretxuko udaletxean. Aurten IKERLORAenpresako teknikoei osatu dute epaimahaia, beti ere Urretxu eta Zumarragako udalek jarritako irizpideak kontuan harturik. Hoana hemen sarituen zerrenda:

### Kaleko balkoi eta leihoak:

- Elizkale, 19-1. G (Mikela Aldasoro)
- Urdaneta hiribidea, 5-4. E (M.<sup>a</sup> Rosario Zaldua)
- San Gregorio kalea, 23-4. esk. (M.<sup>a</sup> Jesús Zabalo)
- Secundino Esnaola, 14 B - 2. B (Elisa San Vicente)
- Secundino Esnaola, 5-3. F (Lourdes Idiakez)
- Ipar-haizea, 48 esk. eta esk. (M.<sup>a</sup> Gloria Corchete - Ana M.<sup>a</sup> Sánchez)
- Ipiñarrieta kalea, 30 - 3. esk. (M.<sup>a</sup> Aranzazu Iraola)
- Labeaga, 40 - 4. B (Miguel Antonio Díez eta Ventura Murillo)
- Labeaga kalea, 12-3. G (Luis Guezalaga eta Rosa M.<sup>a</sup> García)
- Barrenkale, 17-5. D (Julio Elizondo eta Pili García de Albeniz)
- Jauregi kalea, 21-1. C (Antonio Pérez eta Amaia Soraluze)
- Labeaga kalea, 51-2. A (J. Imanol Mendiola eta Maite Zufiurre)

### Baserriak:

- Aldasarren baserria. M.<sup>a</sup> José Aizkibel
- Martiamuno baserria. Edurne Astigarraga
- Ondarre baserria. Constantina Alzola
- Beain baserria. Mila Aranburu
- Zuloaga baserria. Margarita Luluaga
- Erratzu goikoa baserria. M.<sup>a</sup> Pilar Salaberria

## HERRI ORDEZKARI BATEN ATXILOKETA

Apirilak 29ko (astelehena) eguerdian, Batasunako udal zinegotzia den Joseba Garmendia atxilotua izan zen gure herrian eta Aranjuezeko kartzelan espetxeratu dago gaur egun.

Ondorioz, Batasunak mozio bat aurkeztu zuen eta bozeramaileen batzordean adostasunik lortu ez zelarik, EA-EAJ taldeak beste mozio bat proposatu zuen osoko bilkuran eztabaidatzeko.

Udalbatzarrak, ostegunean, aparteko osoko bilkura ospatu eta, alde zuretik komunikabideetan iragarritako operazio politiko-judizial hori seriotasun gutxikotzat jo zuen, zein Alderdien Legearen aldaketa onartzeko eremu politikoa prestatzeko ari zela kontsideratuz. Honelako jarduketak, balore demokratikoak, bizitza eskubidea eta pertsona guztien askatasuna lortzen lagundu beharrea, zaildu baino ez dutela egiten onartu zen. ETA-ri bide armatua uzteko dei egin zitzaion, hitzarekiko nahiz Euskal Herriaren erabakiarekiko erabateko errespetua izanik; eta Estatuko aginteei, atxilotuen eskubide guztiak errespetu eta bete ditzaten eskatu.

Mozioa, EA-EAJ-ko 6 zinegotzien baieztok botoekin onartua izan zen, Batasunako 3 ordezkariak kontrako botoa adieraziz eta PSE eta PP-ko ordezkariak azaldu ez zirelarik.

Dagoeneko herri guztia jakinaren gainean dago, baina badaezpada ere, urriaren 6an Urretxu eta Zumarragan Kilometroak jaia ospatuko dela gogoratu nahi dizue Kaixok. Hamazazpi urteren ondoren jai hau berriz ere, Lourdesko Ama ikastolak antolatuko du eta "elkarren beharrean" lelopean jende andana bilduko dela espero da.

# Badator Kilometroak!



**K**ilometroak ekimena egiteko ideia Josu Erguinek ekarri zuen Gipuzkoara. Ameriketara egin zuen bidaia batean antzeko zerbait ikusi eta hemen ere egin zitekeela pentsatu zuen. Lehenengo ekitaldi hura 1977an Beasain eta Lazkaon egin zuten. Orduko hartan zirkuitoko kilometro bakoitzeko kontrol postu bat egoten zen eta handik pasatzean kartulinatxo batean zigilua jartzen zen. Kilometroetan parte hartu nahi zuenak babesle bat aurkitu behar zuen, kilometro bakoitzeko diru kopuru bat emango ziona. Zigilatutako kartulinatxoak zen lagun horrek zirkuitoa bete zuenaren frogak. Jasotako diru hori ikastolari ematen zitzaion bere proiektuak burutu zitzen.

Denborarekin Kilometroak aldatzen joan da. Gaur egun, antolatzen diren postuetan eta bestelako ekimenetan ateratzen da proiektuak garatzeko dirua. Aurtengo Kilometroak goizeko 9:30etan hasiko da, Ikastolan egingo den zinta moztearekin eta handik aurrera musika, jolas, kirol eta mota guztietako ekitaldiz betetako eguna hasiko da.

Antolatzaileek bi ibilbide prestatu dituzte. Luzeak ia bederatzi kilometro eta erdi ditu, bigarren eta hirugarren gunek diren Erratzu eta Santa Barbaratik pasatzen baita. Egun horretan alferxeago dabilenak berriz, Ikastolatik Etxaburura joatea aukeran izango du eta zazpi kilometroko zirkuitoa osatu.

Denera, zortzi gune prestatzen ari dira antolatzaileak ibilbide osoan banatuta. Lehenengoa ikastolan bertan egongo da, eta handik Erratzura doa ibilbidea, bigarren gunera. Hirugarrena Santa Barbaran dago eta jaitsieran, laugarrena Etxaburun. Bosgarren eta seigarren gunek herrian daude, bata Urretxuko aldapan eta inguruko plazetan eta bestea, Zumarragako trintxeraren. Handik Antiora igo behar da, Gurrutxaga baseritik gora zazpigarren gunera iristeko eta jaitsiera Eitzatik izango da. Azkenik zortzigarren gunea Zelai Aristi, Zumarragako plazan eta Lizeoan banatuta egongo da. ■

*Agurtzane Aramend*

## Z O Z K E T A



Erantzuna:

Izen-Abizenak:

Helbidea:

Telefona:

Kilometroetako antolakuntzak hiru lote eman dizkio Kaixori irakurleen artean banatu ditzan.

Lote bakoitzean **kamiseta, txapela eta insignia** daude. Hori lortu ahal izateko honako galdera honi erantzun beharko zaio:

**- Ze urtetan jarri zen martxan Urretxu-Zumarragako ikastola?**

Erantzuna baldin badakizu postaltxo bat bidali edo eraman Urretxuko Kultur Etxera (Jauregi, 19). Bertan jarri Kilometroak zozketarako dela, zure datuak eta galderaren erantzuna. Asmatzaile guztien artean irailako azken astean egingo da zozketa.

Bizitza,  
bihotz hitsak laztandu du.  
Bizitza,  
izotz puska bihurtu zait.  
Bizitza,  
euri gorabehera batek busti du,  
ta bertan,  
nire nigar ixila,  
ta niri begira  
ilargi argi herabea.  
Argi herabe horretan  
galdu naiz  
zorion bila,  
goiz eder baten ametsean.  
Bertan zure irribarra  
aurkitu dut,  
zure begirada gardena...  
ta bizitza  
kolorez jantzi du,  
ta izarrak dantzari jarri dira  
ZURE ONDOA

2002-VII-21 



# Lagun baten oroimenez



KAIKO 78 hau ixtekotan genbiltzala, berri garratza iritsi zaigu KAIKO aldizkaria egiten dugun lagunoi: gure laguna eta lankidea zen Miren Josu, hil egin zaigu. Nola adierazi barruko zimeldura, barruko ezintasuna, barruko tristura infinitoa... Agian gure lagunak, Ana Isabelek, idatzitako poemak lagun gaitzake horretan. Miren Josu, zauden tokian zaudela, ziur egon KAIKO aldizkarian utzitako lanekiko irrikia eta lagunarteko giroa gure artean izango direla betiko.

KAIKOko lagunak

Kaixo gazte

# ziber-uda

**I**er moduz gaztetxo? Uda iritsi dela, aspertu aurpegi hori ez jarri niri! Azterketak amaitu dira, eguraldi ona dago, kalera irten eta izozki bat jan edo lagunekin egon...zenbat gauza egin ditzakezu!

Etxean geratzen zarenerako ere zenbait gauza prestatu dizkizut pixkat alaitu zaitezten, hori bai, internauta horietako bat bazara, eh!

Gazteentzako hamaika orrialde aurki ditzakezu, nik pare bat aurkitu ditut interesgarri...

- **Kaixo.com**-en sartuz gero kaixo txat, jokuak, postalak, turismoa...ri buruz informazio asko aurki dezakezu, eta jai denboraldia hasi denez, ba jaiak.net orrialdean sar zaitezke ere. Beste helbide interesgarri batzu:

- <http://www.tebeos.org>
- [1001fotos.com](http://1001fotos.com)(argazki bilduma )
- <http://gaztemania.com>

Guzti horiek aisialdian sartzen bazara.

Hemen bertan ere gazteweb.com orrialdean sar zaitezke, eta hemen gazteen inguruko hainbat datu eta entretenimendu izango dituzu, txata, jaiak, sexua, bidaiak, horoskopoa...

Euskal Irrati Telebistako orrialdean sar zaitezke, nahi izanez gero, hona hemen helbide ezberdinak:

- Euskadi gaztea. [http://www.eitb.com/euskara/top\\_gaztea](http://www.eitb.com/euskara/top_gaztea)
- Hi bizi haiz hi. <http://www.ir-a.net/egaztea>
- Abestiren bat eskatzea nahi? [egaztea@eitb.com](mailto:egaztea@eitb.com)
- Telebista: <http://www.eitb.com/euskara>

Helbide gehiago izango dituzu ere, auskalo zenbat, baina hori zuk ikertu beharko duzu gaztetxo, uda luzea duzu eta...





# Kaixo Txiki

## ziber-uda

**z**upa txiki! Hemen naukazu berriro ere uda garaia iritsia dela zure aurrean denborapasa batzu eskeini nahian. Ordenagailuan jolastea atsegin al duzu? Ziur nago gainera nik neu baino trebeagoa izango zarela erabiltzen, bai bai.

Uda honetan piszinara, ondartzara, mendira...joateko aukera izango duzu, noski, eta agian interneten ere ibiliko zara. Tori hemen bertan aritzeko zenbait informazio interesgarri...

\***Kaixo.com** orrialdean sartzen bazara, bai, **txiki.net** ek aukera anitz emango dizkizu ongi pasa dezazun. Bertara zure marrazkiak, ipuinak, txisteak, gertakizunak, eritziak....bidali ditzakezu, eta hortxe agertuko dira jende guztiak ikus ditzan. Ipuinen atala, jokuena, kantuen...daukazu. Sar zaitetz primeran pasatuko duzu eta! **Txiki.net Euskal Herriko umeon zibertxokoa duzu.**

- Pokemon gustatzen zaizula? Ba, **Hispavista.com** era sartu, eta hortxe izango duzu Pokezona, noski ba!  
<http://www.pokezona.es/fm>

- Eta Betizu saioa ikusten al duzu? Ba, tori helbidea !  
<http://www.eitb.com/betizu>

Ziur nago mila txoko ezagutuko dituzula, neronek baino gehiago, baina txiki, esan dizut lehenago ez naizela zu bezain trebea...

**Ona da lehen aldiz Txiki Txiki.net berritu?**

